

Museo eta
Arte Zentroetan
BERDINTASUN ATARI
baten aldeko
MANIFESTUA

MUSEO ETA ARTE ZENTROETAN BERDINTASUN ATARI BATEN ALDEKO MANIFESTUA

Museoek arte-ondare propio bat moldatzeko eta gordetzeko helburua dute, baita jarduera sortzailea ikertzea, dokumentatzea, erakustea eta zabaltzea ere. Zentro hauek, denborarekin, kultura bisuala legezkatzen duten erakunde nagusiak bilakatu dira eta, azkenik, komunitate edo lurralde oso baten kulturaren kontaketa aurkezten dute.

Arrazoi honegatik, museoek, publikoek zein pribatuek, berdintasunaren alde lan egiteko betebeharra dute, Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubidea baita, eta gero 3/2007 Lege Organikoan, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzen duen, garatua. Hala ere, historikoki ez da justiziarik egin, emakumeak ez direlako kultura eragile gisa aintzat hartu, ezta haien lanei ikusgarritasuna eman. Ezinbesteko eginkisun soziala dugu, beraz, haien oroimena zein duintasuna sendatzen dela bermatzea, eta bere ondarea desagertuz jarraitzen duela saihestea, duten benetako balioa antzeman dadin eta merezi duten lekua izan dezaten, baita kultura zuzenagoa, beteagoa eta demokratikoagoa lortzeko. Hori dela eta, Museo eta Arte Zentroetan berdintasunaren aldeko manifestu honek erakunde hauen web orrietan Berdintasun Atari bat sor dezatela proposatzen du, emakume artisten ekarpenei ikusgarritasun handiagoa emateko, bereziki tokian tokikoei.

Zehazki, hurrengo puntueetatik hasia gomendatzen dugu:

1. Museo eta arte-zentroetan berdintasuna lor dadin, egitura, bildumak eta lan-ildoak aztertzea, baita egiten ari diren ekintzak ere, jardunbide ego-kien kodeak eta eskuliburuak aintzat hartzen dituztenak aukeratzeko.

2. Museoen bildumak berdintasun irizpideen arabera osatzea. Ekintza horiek saihestezinak dira arte garaikideko zentroetan. Ezinezkoa denean, fondeen berrirakurketa egingo da ikuspegi feminista batetik.

3. Emakumeen lan artistiko eta intelektualen hutsuneak eta gabeziak dagokionez, erakusketa eta jarduerak sustatzea, hornidura ekonimoko nahikoa izanik.

4. Kultura guztietako emakume artisten sokuntzak ikusarazi eta ikertuko dituzten ikerketa-talde paritarioen sorrera bultzatzea, gizartearen mailaren, adinaren, geografiaren eta sexu orientazioaren aurrean duten jarrera kontuan hartuta.

5. Gobernu organoetan, zuzendaritza postuetan eta museoetako kontratatuetan gizartearekin ekitatez bat etortzen dela bermatzea.

Aurreko puntuekiko konpromisoa sinatzeko, eta emakumeentzako bizitzeko birbanaketa, irudikapena eta aintzatespena lortzeko, museoetan eta arte zentroetan Berdintasunerako Atari bat txertatzea proposatzen da, berdintasun-ikuspegi honetatik egindako bildumei, erakusketei eta jardueri buruzko lan-ildoak ikusgai eta eskuragarri egon daitezzen.

Era berean, lehendik dauden kultura-behatoki publikoekin lan egiteko konpromisoa ezartzen da, plan estrategikoetan berdintasun-politikak txertatzen lagunduko duten analisiak eta txostenak gehitzeko, bai eta museoek eta arte-zentroek gauzatu beharreko ekintzak ere, betiere gizartearekin bat-etortzea eta jardunbide egokiak kontuan hartuta.

COVID-19ren krisiak sortu duen egoeraren aurrean, genero-arrakalak aragotzen dituen, Arte Garaikideko Museo eta Zentroei eskatzen diegu kultur osasuna berreskuratzeko ekintzarekin bat egin dezatela, bai sakontasun zein baldintza berdinetan.

Ekimen hau, hasiera batean Espainiako Estatuko Museo eta Arte Zentroei zuzendua, nazioarteko esparrura eraman ahal izatea espero dugu.